GELAN ARRAKASTA TXIKIAK HANDI IZATEKO GIDA

afadena

Honako gida AFADENAko Hezkuntza Batzordeak egin du.

AFADENA, Nafarroako Adopzio Familien Elkartea, hamar urte baino gehiago darama familientzat erreferentzia eta elkartze puntu bezala, bai kalitatezko adopzio ondorengo fomazio baten bidez, bai adopzio buruzko irudi errealista bat emanez eta beharrezkoak eta egokiak diren lege aldaketak burutzen.

MAGALE elkartea 2003 urteko abuztuan, bizipenak elkarri emateko eta bere eguneroko arazoei buruz aholku bilatzeko, harrerazko haurren gurasoen eskutik jaio egin zen. Bide batez, bai bere haur biologikoei bai harrerazkoei, harrera familia eredua existitzen dela erakusteko, non mota guztiko familia egoerak dauden.

Panda Navarra elkartea Txinako Herri Errepublikan adoptatu duten familiei pozesuari buruzko informazioa eskeitzeko lan egiten du. Baita ere, familien formaziorako programen antolatzen dute eta adopzioa, eta batez ere, txinako Kultura sustatzeko, hitzaldi eta iardunaldiak antolatzen dituzte.

Gida honetan izanen dituzu:

1. IKASTETXEAREN EGITEKOA HOBETZEKO GAKOAK

2. FAMILIA-IKASTETXEA ELKARLANEAN ARITZEKO JARRAIBIDEAK

3. GELAN IKAS-PROZESUA LAGUNTZEKO ESTRATEGIAK

4. GELAKO ZENBAIT JARDUERA, ERA INKLUSIBOAN

SARRERA

Izanen da, agian, zuen ikastetxean, abandonu goiztiarra izan duen umerik. Haur horiek **abandonu egoeraren biktima dira** eta, beren egoera hobetze aldera, gizarteak aukera batzuk ematen dizkie: harrera familiak edota zentroak, adopzioa eta instituzionalizazioa, besteak beste.

Familia izan ohi da umeon lehenbiziko erreferentzia; eskola da bigarrena. Abandonu goiztiarreko ume guztien egoerak ez dira berdinak, baina, oro har esan dezakegu guztien garapena baldintzatua dagoela. Eskolari dagokionez, zikloa edozein dela ere, **ezaugarri berariazkoak eta berezituak dituzte** eta gehienek dituzte **behar espezifikoak**, batik bat diagnosi baten babesik ez dutenak.

Ume horien zelula guztietan iltzatuta daude abandonuaren esperientziaren ondorioak eta ondorio horiek babes-neurriaren aurretik sortuak dira. Gako nagusietako bat da **ATXIKIMENDUAK HUTS EGITEN** diela. Erreferenteak galtzea, separazioak, arretarik ez jasotzea, negligentzia...gertaera horiek behartu egiten dute umea, maiz, bizitza **ordenik gabeko ibilbilbidean erakitzea**; ibilbide hori ikaskideena ez bezalakoa izaten da: bestelako antolamendua eta bestelako armonia erakusten dute.

Horregatik, maiz, eskolatzeko unean desabantailan hasten dira, beti egin behar izaten dute ahalegin handi bat eta haien beharrak espezifikoak dira (bai inguru fisikoarenak, bai heziketari dagozkionak).

Hezkuntza arloko **profesionalen lan molde eta praktika egokiak eredu hartu ditugu**, gida hau idazteko tenorean; **arrakasta lortzeko gakoak** zein diren erakutsi dizkigute (eskolan hasteko tenorerako, inklusiorako eta eguneroko jardueretarako)



1. IKASTETXEAREN EGITEKOA HOBETZEKO GAKOAK

Ikastetxea aukera ona da, erresilientziarako eta umeari laguntzeko.

Horretarako, ezinbestekoa da inklusio kontzeptua bereganatzea; izan ere, badago alderik inklusioa eta integrazio/asimilazio adieren artean. **Inklusioa** normalizatzea da, **diferentzia ontzat hartzea**, **umea** izatea **abiapuntua** eta bere erritmoan lagun egitea.

Beraz, eskolak - eta ikastetxeak - heziketarako behar espezifikoen gaineko kontzeptu batzuk eguneratu egin behar ditu; kontzeptuak bezalaxe, baita irizpideak eta baliabideak ere. Hartara, beharrok ulertu eta egoki erantzuteko moduko eskola izanen dugu: **behar espezifikoak** dituen umeari **arreta handiagoa emanen dio, erritmoak errespetatuko ditu, eta, gainera, krisiak eta konfliktoak egokiago artatuko ditu**.

Eskola inklusiboak haur horien gaitasun eta heldutasunen araberako **ikas-helburu eta ebaluazioa diseinatu** behar ditu; abandonu goiztiarraren ondoriozko desorekak eta nahasteak -trastornoak- konpentsatzeko bidean jarri; **espektatibak** -itxaropenak- **neurrira jarri**; ume zaurgarriagook **babestu** -ondokoen eraso, probokazio eta manipulaziotik, harrera zein adopzio bidezko familia eredua legitimatu, azaldu, onetsi.



Hona hemen eskolarako gakoak:

A. Inklusioa banaka gertatzeko **proiektu pertsonala** egitea; akademikoa ez ezik, baita estrategikoa ere.

B. Diagnosi sozio-emozionala egitea, ezagutzarenaz gain; hartara, haurraren profil errealena lortuko du, ahalik eta egokien kokatzeko ikastetxean. Diagnosi hori maiz berrikusiko da, umearen premien arabera.

C. Adin biologikoak ez du, beti-beti, heldutasunarekin bat egiten; beraz, **eskolatzeko unea diagnosiaren gainean eginen da**, batik bat adin kronologikoaren azpiko kasuetan.

D. Inklusioa/integrazio prozesua familiarekin batera eginen da, baita umearen errekuperazioan parte hartzen duten gainerako profesionalekin batera ere.

E. Baliabideak zehaztu, ondoko helburu hauetarako:

- Atxikitze-estiloa behatzeko.
- Autoirudia, autoestimua eta autoregulazioa baloratzeko (sozializaziorako erabakigarriak).
- Babes-neurriak zehazteko, batez ere gehiegikeriak, jazarpenak eta arrazismoa gertatzen denerako; arreta berezia jantokian, jolastokietan eta pasabide ilunetan.
- Ikastetxeko eragile guztien arteko koherentzia bermatuko du: gelatik ez botatzea, agenda kudeatzeko era, jokabide zenbait zuzentzeko gaitasun txikiagoa kontuan hartzea, barkamen-eskeak beti onartzea.
- Familia eta ikastetxea elkarlanean aritzea.

afadena

2. FAMILIA ETA IKASTETXEA ELKARLANEAN ARITZEKO JARRAIBIDEAK

Protokolo bat tresna ezin hobea da ikastetxea eta harrera/adopzio familiaren arteko elkarlana lortu nahi badugu. Horren bidez, gisa honetako onurak lortuko ditugu:

Elkarlanerako kultura sustatzea: alde batetik, familiek ezagutzen dituzte umeak hobekien; bestetik, berriz, irakasleak adituak dira heziketa-prozesuan eta, aldi berean, sozializazioan eragile garrantzitsuak dira. Beraz, familiak eta profesionalak batera jardutea ahalbidetzen du

Haurra testuinguru desberdinetan behatzea; behaketa horiek partekatzen baditugu, aukera handiagoak ditugu nola sentitzen den eta zer behar duen antzemateko.

Eskolan egokitze hoberako bidea ematen du.

Unean uneko helburu xeheak antolatu ditzakegu.

Adostea exijituko dizkiogun autonomia maila zein den, baita baloreak eta portaerazko jarraibideak ere.

Segurtasuna eskaintzea umeei, ingurumari berrian.

Gurasoek seme-alabei laguntzeko baliabideak eta metodoak eskaintzeko modua, etxeko lanetarako, zenbat denboran jardun...; gainera, gogoan izan behar dugu guraso asko eziakinak garela alor horretan.

Gomendagarria da, beraz, haurrak bere lekua izatea hartu-eman horretan, aukera izatea -adin eta gaitasunaren arabera- lehentasunak adierazteko.

1ª BILERA:

Izena emateko tenorean; parte hartuko dute gurasoak eta haurrarentzat zuzendari edota orientatzaile rola eginen dutenak. Une honetan, garrantzitsua da, oso, familiak ondoko datuok partekatzea:

- Harrera/adopzioa gertatu zeneko adina, familia berriarekin daraman denbora.
- Eskolatzearen aurretik haurtzaindegian/bestelakoetan egon den eta zenbat denboran.
- Nolakoa izan zen apartatzea, banantzea: lehendabiziko familiatik, erreferentziazko pertsonetatik nola, noiz eta zein egoeratan bereizi zuten. Horrekin batera, egungo familiarekiko atxikimendua eta lotura nolakoak diren adierazi.
- Hizkuntz(ar)en ezagutza maila (ulermenerako zein adierazpenerako gaitasuna).
- Heldutasun emozionala deskribatu. Autonomia & dependentzia helduekiko. Umearen interesak eta jolas gogokoenak zein diren.
- Garapen fisikoa nolakoa den, gaixotasunik pairatu duen edo baduen.
- Familia nola antolatzen den; ea baduen umeari arreta eskaintzeko behar adina une, guraso eta seme-alaben arteko harreman afektiboen nolakotasuna.

Informazio horrek guztiak ekarpen handia egiten dio ikastetxeari, batez ere gurasoei adierazteko nola eginen den eskolatzea: denbora, maiztasuna eta maila, beti ere adina, egoera emozionala eta egoera berrian duen denboraren arabera.

afadena

2ª BILERA:

Gelan hasi aurretik; parte hartuko dute gurasoek eta irakasle/tutoreak. Egokia izan daiteke umeak bileraren bukaeran parte hartzea.

Une egokia:

- Adosteko nola landuko den ikastetxean umearen harrera/adopzio prozesua.
- 5 urtetik gorako umeen kasuan, familiak ume(ar)ekin hitz egin beharko du nola landu nahi duen gaia. Harrera/adopzioa nabarmena denean, klaseko lehenbiziko egunetan, gelan adieraziko da galarazita dagoela FAMILI HARRERA/ADOPZIO hitzak eta arrazakeria kontuak iraingarri erabiltzea.
- Gurasoak informatzeko aniztasuna nola lantzen den geletan. Aniztasuna adiera zabala da eta familia ereduak -harrera/adopzio bidezkoak barne- aniztasun horren atal bat gehiago dira, elkarrekin bizi eta, elkar zainduz, elkar maite duten unitate familiarrak.
- Gurasoei garbi uzteko familiaren datu pertsonal eta intimoak bereziki zainduak izanen direla; horrez gain, intimitaterako eskubidea bermatuko duela eskolak.

Bileraren bukaera une egokia izan daiteke umeari azaltzeko:

- Ikastetxeko arauak: zer dagoen ongi eta zer gaizki.
- Tutorea, zuzendaria eta orientatzailea direla haren erreferentziazko irudiak, edozein dela arazoa edo bertan bizi duena.
- Gela eta espazio fisikoa erakusteko; hala, aldez aurretik ezagutzea inguru berria mesedegarria izanen zaio.

Prozedura horrek bidea erraztuko dio umeari, tutorearen irudia segurtasunarekin lotzeko bere barnean; eskolatzeko unea beldurrez eta zalantzez jositako unea baita.

Ezinbestekoa da, halaber, maiz-maiz izatea bilerak, familiak eta hezitzaile/irakasleen arteko elkarlana eta partekatzea gerta dadin.

3.GELAN IKAS-PROZESUA LAGUNTZEKO ESTRATEGIAK.

Arrakastarako giltzarriak: motibazioa + bestelako diziplina eta kontrola.

$A = m + k$

- Sari txiki ugari; arrakastarako urrats txikiak nabarmendu eta erronken aurreko errefortzu positiboak adierazi. Nolako arrakasta, halako motibazioa.
- Diziplina neurri malguagoak, arauak betetzeko arazo handiagoak baitituzte eta beraz, ez betetzeko aukerak ere handiagoak dira.
- Konponbiderako modu alternatiboak, positiboagoak, ekintzetara lotuagoak (gaizki egindakoa konpontzeko modu eraginkorrak eta gauzatzeko modukoak)
- Zigorrak ezartzeko modu berriak eta egokiak (laburrak eta denbora kontzeptutik hurbilak)
- Oharrak eta abisuak maiz jaso behar dituzte; hala, balizko ondorioei aurre hartzeko moduan prestatuko dira eta, gainera, inpultsibitatea erregulatzen trebatuko dira.
- Heldua da, une oro, egoeraren arduradun eta erantzule, batik bat momentu kritikoetan.
- Ez apartatu / ez bota gelatik; izan ere, abandonua biziberritzeko arriskua dute, maiz kontzientziarik gabe, eta, gainera, ez dute deus ikasten kanporatze horretatik.
- Damuak eta barkamen eskeak beti sinetsi, egiazkoak baitira denak. Gerta daiteke, sarri, hitzari ezin eustea: beren burua kontrolatzeko traba handiak dituzte eta behin eta berriz egin dezakete huts.

afadena

Gainbegiratze erabatekoa, etengabekoa eta garraztasunik gabekoa.

G=e+e-g

- Ahalik eta kontaktu handiena - begiz begikoa, ukipenezkoa, hitzezkoa....-, helduaren irudia hurbil dagoela senti dezan.
- Jarduera orotan -edozein dela ere- , laguntza eskaini.
- Erronka "normal"en aurrean ez utzi bakarrik egiten, ez exijitu autonomiarik. Autonomia ez da inoiz bakardadetik sortzen, lagundurik baizik.
- Ez uste izan jarraibideak ulertu eta segituko dituenik; maiz, kosta egiten zaie onartzea ez dutela ulertu eta, gainera, ez dakite nola eskatu laguntza edo nola galdetu.
- PAZIENTZIA eta AMORRURIK, HASERRERIK adierazi gabe jardun. Harentzat autokontrolerako eta autoerregulaziorako eredu izan.

Ebaluazio-sistema egokitua, pertsona ardatz.

- Azterketa egoeretan maiz nahasi/blokeatu egiten dira eta horrek eragin handia du errendimenduan. Ariketak egingo baditu, baliabide sinpleak eman: esaterako,hurbildu eta instrukzioa errepasatu.
- Probak, jarrerak eta portaerak: karga espezifikoa zehaztu emaitzetan. Eguneroko lanak eta ahaleginak baloratu.
- Portaeragatik suspenditzea gehiegikeria da eta etsipenera eramaten ditu zuzen-zuzen.
- Ebaluatzeko modu ugari erabili: ahozkoak, lanak, ekintzak eta jarduerak...baina batik bat, haien ahaleginak baloratu. Portaera ona erakusteak eta ikasteak askoz indar handiagoa exijitzen die gure umeoi gainerako kideei baino.

4. GELAKO ZENBAIT JARDUERA, ERA INKLUSIBOAN.

Hezkuntza-sistemak, oro har, eta ikastetxeak, ondorioz, irizpide biologikoa gainditu beharra dauka. Lotura sozio-emozionalak ordezkatu behar du biologiarena.

Ikastetxeko rol guzti-guztiek hitzezko mezu inklusiboak eta onargarriak erabili behar ditu, adierazpide guztietan. Are gehiago, familia-ereduei buruz ari denean:

- Benetako/egiazko gurasoak
- Abandonatu egin zintuzten
- Utzi egin zituzten
- Ez zintuzten maite

- Zure gurasoak ez dir a egiazkoak
- Zure benetako ama
- Ama soltera

- Haragi kolorea
- Kongitoa
- Put@ (chin@ negr@...)
- Txikillikuatrea

- Gaizki kokatutako umea / kokatzen zaila
- Ume berezia

- Jaiotzetiko gurasoak
- Zuretzako familia bil atu zuten
- Zuretzako onena egin zuten denek

- Guraso hauek betirako dituzu
- Ama da zu zaintzen zaituena
- Ama

- Kolorea izendatu hiztegia lagun
- ADIERAZPIDERIK GABE KALIFIKAZIORIK GABE
- IRAINDU GABE

- Behar bereziak / espezifikoak ditu
- Ume saiatua

Nor da ama? Zerk egiten gaitu guraso? Ezin ditugu entzun / ezin ditugu esan ondokook: "zu ez zara hemengoa, zure ama ez da benetakoa, zure gurasoak erosi egin zaituzte…"

Adopzio/harrera bidezko familia osatzeko eragile ugarik parte hartzen du: *familia biologikoa, erakunde batek baino gehiagok eta familia adoptantea/hartzailea, ezin bestean; den-denek egiten dute beren ekarpena. Baina, ezin ahaztu dugu umeok erreferentziazko munduak ez daudela besteenak bezalaxe ordenatuak; maiz ezin dute irudikatu nork sortu zituen, nola eta nondik-nora ibili eta etorri diren orain dauden lekura.*

Abandonu egoera jasan behar izan duten umeek badute zeregin berezi bat, besteek ez dutena, ez modu berean behintzat: haien historia eraiki, oratu, ezkondu, aurreak eta atzeak lotu behar dituzte.

Haurren Eskubide Unibertsalen Kartak dio *abandonu esperientzia izan duten umeak hemengoak dira, gureak direla. Ume orok du, berez, familia izateko eskubidea, inguru egoki eta egonkorrean bizitzeko eskubidea.*

Familia-moldeaz gain, badira gelako jarduera batzuk egokitu beharrak, errealitate berriak gogoan hartuta. Lehen aipatu dugun kultura biologizista hori gainditu eta bestelako irizpideak txertatuta, honelatsu geldituko lirateke:

ESAN BEHARREAN

ZUHAITZ GENEALOGIKOA

JAIO ZINENEKO ARGAZKIA

FAMILIA BIOLOGIKOAK

AMAREN EGUNA

AITAREN EGUNA

ESANGO DUGU

BINCULOGRAMA

TXIKITAKO ARGAZKIA

FAMILIAK

FAMILIAREN EGUNA

MAITE GAITUZTENEN EGUNA

AFADENA elkartearekin harremanetan jartzeko:

Web-gunea: www.afadena.es

Posta elektronikoa: secretaria@afadena.es

Facebook: https://www.facebook.com/afadena.navarra

Twiter: @afadena

MAGALE elkartearekin harremanetan jartzeko:

Web-gunea: http://www.magale.asociacionespamplona.es/

Posta elektronikoa: asociacionmagale@yahoo.es

PANDA NAVARRA elkartearekin harrementan jartzeko:

Web: http://www.pandanavarra.net/

Correo electrónico: pandanavarra@hotmail.com

AFADENA eta PANDA NAVARRA, CORA estatu mailako Adopzioaren eta Familia Harreraren Defentsarako Elkarteen Federazio Koordinakundea; www.coraenlared.org

CORA

Textua eta diseinua:

afadena

Guida hontara atxikitu egin dira:

Panda Navarra
Asociación de Familias Adoptantes en China

Magale

Gida honen inprimaketa ordaindu egin du:

Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra

Gida honen hizkera ez sexista izan dadin era desinteresatu batzez kolaboratu egin dute:

era berria
Consultoría Aholkularitza